

**EIBAR SAHARA ELKARTEAREN  
ALDEKO DIRU-LAGUNTZA  
IZENDUNA BIDERATZEKO  
HITZARMENA, “OPORRAK  
BAKEAN” PROGRAMARAKO**

**CONVENIO PARA LA  
CANALIZACIÓN DE LA  
SUBVENCIÓN NOMINATIVA A  
FAVOR DE EIBAR SAHARA  
ELKARTEA EN CONCEPTO DE  
AYUDA AL PROGRAMA  
“VACACIONES EN PAZ”**

Eibarko herrian, 2018ko ekainaren 1ean.

En la Ciudad de Eibar, a 1 de junio de 2018

**BILDUTA**

**REUNIDOS**

Batetik, MIGUEL DE LOS TOYOS NAZÁBAL jauna, EIBARKO UDALEKO alkate-udalburua.

De una parte, D. MIGUEL DE LOS TOYOS NAZÁBAL, Alcalde-Presidente del AYUNTAMIENTO DE EIBAR.

Bestetik, andrea NANA duena, EIBAR SAHARA ELKARTEA entitatearen izenean eta haren ordezkari gisa (hemendik aurrera onuraduna), IFK G75057083.

De otra parte, con DNI en nombre y representación de la Entidad EIBAR SAHARA ELKARTEA (en adelante, la beneficiaria), CIF G75057083.

**ADIERAZTEN DUTE**

**MANIFIESTAN**

Hitzarmen honen helburua dela onuradunaren alde bideratzea Eibarko Udalak indarrean duen Aurrekontuko 1. 1.0500.481.14.231.80 partidako diru-laguntza hauek: “OPORRAK BAKEAN PROGRAMARAKO LAGUNTZA, 2018”, 2.200,00 euro izanik diru-laguntzaren zenbatekoa. Era berean, xedea du onuradunak bere gain hartzen dituen baldintzak eta konpromisoak ezartzea.

Que la finalidad del presente convenio es canalizar a favor del beneficiario las subvenciones que figuran en el vigente Presupuesto del Ayuntamiento de Eibar dentro de la partida 1. 1.0500.481.14.231.80 con el siguiente literal: “AYUDA AL PROGRAMA VACACIONES EN PAZ, 2018”, siendo el importe de la subvención de 2.200,00 €. Así mismo, tiene como objetivo establecer las condiciones y compromisos que asume la beneficiaria.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak (DLO), hauxe dio bere 22.2. artikuluan: Estatuko Aurrekontu Orokorreran, Autonomia Erkidegokoetan edo Toki Erakundeetakoetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak modu zuzenean eman daitezkeela Hitzarmenetan eta diru-laguntza horiek arautzen dituzten arauetan jasotako baldintzetan; eta lege beraren 28. artikulua dio hitzarmenak izango direla diru-laguntza horiek bideratzeko ohiko bitartekoak.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (LGS) dispone en su artículo 22.2 que podrán concederse de forma directa las subvenciones previstas nominativamente en los Presupuestos Generales del Estado, de las Comunidades Autónomas o de las Entidades locales, en los términos recogidos en los Convenios y en la normativa reguladora de estas subvenciones, y en el artículo 28 establece que los convenios serán el instrumento habitual para canalizar estas subvenciones.

Diru-laguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduko (DLOE) 66. artikulua bere aldetik dio, horrelako kasuetan, Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren ondorioetarako, diru-laguntza emateko egintza edo hitzarmena bera izango dela diru-

Por su parte, el Reglamento de la ley General de Subvenciones (RGLS) en su artículo 66 prevé que en estos supuestos el acto de concesión o el convenio tendrá el carácter de bases reguladoras de la concesión a los efectos de lo dispuesto en la ley General de

laguntza emateko oinarri arautzaile izaera izango duena, eta edukia ere zehazten du.

Subvenciones, y determina el contenido del mismo.

Horrela, xedapen horietan ezarritakoarekin bat, alde biek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, eta ondoko klausula hauei jarraituko diete:

Así pues, de conformidad con lo establecido en las citadas disposiciones, ambas partes acuerdan suscribir el presente convenio, el cual se regirá por las siguientes cláusulas:

## KLAUSULAK

## CLÁUSULAS

Honako lege hauek dira diru-laguntza arautzen dutenak:

La concesión de esta subvención está regulada por:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorra.

a) La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

b) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru-laguntzen Lege Orokorren Erregelamendua arautzen duena.

b) El Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

c) Eibarko Udalaren Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra, Udalbatzarrean onartua 2012ko azaroaren 26an, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2013ko urtarrilaren 17an.

c) La Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Eibar, aprobada por el Pleno Municipal en sesión celebrada el día 26 de noviembre de 2012 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del 17 de enero de 2013

d) Hitzarmen honetan jasotako klausulak.

d) Las cláusulas contenidas en el presente Convenio.

**BIGARRENA: diru-laguntzaren xedea.**

**SEGUNDA: Objeto de la subvención.**

Alde biek hitzartu duten diru-laguntza, onuradunak garatuko duen/dituen OPORRAK BAKEAN, 2018 programaren barruan 3 ume saharar Eibarrera ekartzeko kostua finantzatzeko erabiliko da.

Ambas partes convienen que la subvención se destinará a financiar el coste de traslado de 3 niños saharauis a Eibar dentro del programa VACACIONES EN PAZ, 2018.

**HIRUGARRENA: zenbatekoa eta aurrekontua.**

**TERCERA: Cuantía y crédito presupuestario.**

Oroharreko prezioan emango den diru-laguntzaren zenbatekoa 2.200,00 eurokoa da; Udalak indarrean duen Aurrekontuaren 1.0500.481.14.231.80 partidari egotzia.

La cuantía de la subvención que se concederá a tanto alzado asciende a 2.200,00 €, imputado a la partida 1.0500.481.14.231.80.

**LAUGARRENA: diru-laguntza emateko baldintzak.**

**CUARTA: Condiciones de otorgamiento.**

Diruz lagundu daitezkeen gastuak:

Gastos subvencionables:

Eibarren egongo diren umeen bidaia-gastuak (hegaldia).

Gastos de desplazamiento de los niños acogidos en Eibar (vuelo)

Diru-laguntzaren zabalkundea:

Ez dagokio, jarduera eginda baitago.

Difusión de la subvención:

No se contempla en este convenio por estar ya ejecutada la actividad

**BOSGARRENA:**  
**sinatzea.**

**hitzarmena**

Hitzarmena sinatu baino lehen, onuradunak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Entitate eskatzailearen IFKren fotokopia. IKF dokumentuaren alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

b) Legezko ordekaritzaren kasuan, eskaera izenpetzen duenaren ordezkartaren dokumentu bidez egiaztatua. Egiaztapen hori, zuzenbidean baliozkotzat har daitekeen edozein bitartekoren bidez egin daiteke (notario-ahalordeak, eskriturak...). Ordezkartaren dokumentazio-egiaztapenari, ordezkariaren NANaren kopia erantsiko zaio.

c) Elkartearen estatutuak eta Elkarteen Erregistroan inskribatuta egotearen egiaztagiria.

d) Onuradunaren banku-kontuaren titulartasunaren frogagiria, bat etorri behar dena pertsona onuradunaren identitatearekin. Ondoko dokumentu hauetatik edozein da balioduna: kontu-laburpenaren fotokopia; aurrezki-libretaren fotokopia; banketxeak luzatutako ziurtagiria edo diru-laguntza eskatzeko inprimakiko "Kontu-zenbakia" atalean emandako zigilua.

e) Onuraduna DLOren 13.2 artikulua aurreikusten dituen debekuetan ez dagoela sartua dioen erantzukizuneko aitortpena edo deklarazioa (eredua PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.net](http://www.eibar.net), eskuragarri).

f) Erantzukizuneko aitortpena aurkeztu behar du onuradunak, zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean dagoela eta diru-laguntzak itzultzeagatik ez duela diru-ordainketarik egiteke utzi esaten duena (eredua PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.net](http://www.eibar.net), eskuragarri); Horrekin batera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra eta dagokion Ogasun sailak egindako

**QUINTA: Firma del Convenio**

Previo a la firma del convenio la beneficiaria deberá presentar la siguiente documentación:

a) Fotocopia del CIF de la entidad solicitante. Las dos caras del CIF deberán ir impresas en una misma cara de un folio tamaño A-4.

b) Acreditación de la representación. La acreditación podrá hacerse por cualquier medio válido en derecho (poderes notariales, escrituras...). A la acreditación documental de la representación se le adjuntará la copia del DNI del representante

c) Estatutos de la Asociación y justificante de su inscripción en el Registro de Asociaciones

d) Documento justificativo de la titularidad de la cuenta bancaria de la beneficiaria, que tiene que coincidir con la identidad de la persona beneficiaria (será válido, cualquiera de los siguientes documentos: Copia del extracto bancario; copia de la libreta; certificado expedido por la entidad bancaria o sello estampado por la entidad bancaria en el apartado «Número cuenta» del impreso de solicitud de subvención).

e) Declaración responsable de no encontrarse el/la beneficiario/a incurso en las prohibiciones para ser beneficiario/a previstas en el artículo 13.2 de la LGS (modelo disponible en PEGORA y en la web municipal, [www.eibar.net](http://www.eibar.net)).

f) Declaración responsable de encontrarse al corriente en sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de que no tiene pendiente el pago de obligaciones por reintegro de subvenciones (modelo disponible en PEGORA y en la web municipal, [www.eibar.net](http://www.eibar.net)), acompañada de certificaciones acreditativas de tales circunstancias emitidas por la Tesorería

ziurtagiriak ekarri behar ditu, esandako guztia baieztatuko dutenak.

Dokumentazioa PEGORAn entregatu behar da kultura arloaren izenean, 10 laneguneko epean, onuradunari horretarako egingo zaion errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Behin eskatutako dokumentazio egokia entregatuta, Hitzarmena sinatuko da.

General de la Seguridad Social y la Hacienda competente

La documentación deberá entregarse en PEGORA, a la atención del Departamento de Cultura, en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de recepción del requerimiento que, en tal sentido, se haga a la beneficiaria

Entregada en conformidad la documentación requerida, se podrá proceder a la firma del Convenio

### **SEIGARRENA: beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna edo bateraezintasuna.**

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira helburu berbererako emandako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administraziotatik edo erakunde publikotatik zein pribatutatik, erakunde nazionaletatik, Europako Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozela, zeinahi delarik ere jatorria; diru-laguntza edo laguntza horien araudi erregulatzailerak ezar dezakeena eragotzi gabe.

### **SEXTA: Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones.**

Estas subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales o de la Unión Europea o de organismos internacionales siempre que no se rebase el costo de la actividad subvencionada, sin perjuicio de lo que pudiera establecer la normativa reguladora de dichas subvenciones o ayudas.

### **ZAZPIGARRENA: diru-laguntza ordaintzea**

Diru-laguntza ordaintzeko, aurretik onuradunak egindako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko du.

### **SÉPTIMA: Pago de la subvención**

El pago de la subvención se realizará previa presentación por la beneficiaria de la justificación de los gastos realizados

### **ZORTZIGARRENA: onuradunak duen epea eta modua, diru-laguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen zuritzeko.**

Diru-laguntza emateko helburua bete duela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duen zuritzeko onuradunak duen epea 2019ko urtarilaren 30ean amaituko da.

### **OCTAVA: Plazo y forma de justificación por parte del beneficiario del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.**

El plazo de justificación por parte del beneficiario del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos finalizará el 30 de enero de 2019.

Justifikatzeko modua KONTU GARBIKETA delakoaren bidez egingo da, honako dokumentu hauek izango dituenak:

La forma de justificación será mediante la modalidad de CUENTA JUSTIFICATIVA, que contendrá los siguientes documentos:

Hegazkin-konpainiaren fakturak: bidaiaren zenbatekoa.

Hala badagokio, bidaia ordaintzen duen entitatearen ziurtagiria (zeinaren izenean jaulki den faktura) EIBAR SAHARA ELKARTEAK ordaindu duen zatia egiaztatuz.

Hala badagokio, bidaia ordaindu duen entitateari ordaindu izanaren kopia (banku-transferentziaren egiaztagiria).

a) Facturas emitida por la compañía aérea por el importe del viaje

b) En su caso, certificación emitida por la entidad pagadora del viaje (aquella a cuyo nombre está emitida la factura) acreditando la parte de la misma abonada por la ASOCIACIÓN EIBAR SAHARA ELKARTEA.

c) En su caso, copia del documento acreditativo del abono a la entidad pagadora del viaje (justificante de transferencia bancaria).

### **BEDERATZIGARRENA: Izaera pertsonaleko datuen babesa.**

a) Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak deklaritzen du bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituela.

b) Aldi berean, izenpetzen duenak adierazten du Eibarko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkiola eta datu horiek Eibarko Udalak behar bezala baimenduta dituen fitxategietan sartzeko eta tratamendu automatizatua emateko baietza ematen duela.

c) Sinatzen duenak deklaritzen du, hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela, ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatu duenak baimena ematen dio Eibarko Udalari:

a) Izaera pertsonaleko datu horiek udal kudeaketarako bakarrik erabiltzeko; hala ere, beste Administrazio Publiko batzuei edo beste inori laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie datuok abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (Datu Pertsonalak Babestekoan) aurreikusitako kasuetan.

b) Hitzarmen honen xede den diru-laguntza zuzen kudeatzeko garrantzizkoa den informazio guztia eskuratu ahal izateko, udal sail eta atal guztietan eta beste administrazio

### **NOVENA: Protección de datos de carácter personal.**

Con la firma del presente convenio, la firmante declara que reúne todos los requisitos establecidos en el mismo y que acepta íntegramente las condiciones y obligaciones recogidas en él.

Así mismo, la firmante manifiesta que los Datos Personales facilitados al Ayuntamiento de Eibar son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Eibar.

La firmante declara que la información facilitada para la firma de este convenio es cierta y que no ha sido omitida o alterada.

La firmante autoriza al Ayuntamiento de Eibar:

a) A que el uso de dichos datos de carácter personal se restrinja exclusivamente a la gestión municipal, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre de Protección de Datos de Carácter Personal.

b) A realizar todas las consultas que fueren necesarias en los ficheros de las áreas y departamentos municipales u otras Administraciones Públicas, a fin de obtener la

publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

información que resulte relevante para la correcta gestión de la subvención objeto de este convenio.

Azkenik, Hitzarmen hau izenpetzen duenak deklaratzeko aukeraren inguruko argibide guztiak eman zaizkiola eta, hala bada, esandako Lege horrek ezarritako moduan, datu horiek zuzentzeko, datuen aurka egiteko edo ezabatze eskabidea egiterik ere baduela, Eibarko Udalean datuen tratamenduari buruzko arduradunarengana zuzenduta: Eibarko Udala, Untzaga plaza z/g; 20.600, Eibar (Gipuzkoa). Eskabidea egiteko, datu hauek eman behar ditu: izen-abizenak, helbidea jakinarazpenak bidaltzeko, eskaera zehatza, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Finalmente la firmante declara que ha sido debidamente informada de la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley indicada anteriormente, pudiendo dirigir una comunicación escrita al responsable de tratamiento en el Ayuntamiento de Eibar, plaza Untzaga s/n; 20.600 Eibar (Gipuzkoa) con los siguientes datos: nombre y apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.

Halaber, kontsultatu daiteke “Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako” delakoa webgune hauetan: [www.eudel.eus](http://www.eudel.eus) eta [www.avpd.es](http://www.avpd.es)

Asimismo, se puede consultar el “Manual de Buenas Prácticas de Protección de Datos Personales para entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco” en las direcciones de internet [www.eudel.net](http://www.eudel.net) y [www.avpd.es](http://www.avpd.es).

### **HAMARGARRENA: auzigaiak.**

### **DÉCIMA: Cuestiones litigiosas.**

Hitzarmen honetatik sor daitezkeen auzigaiak, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Eta alde biak ados daudela erakusteko, hitzarmen hau egin eta honen ale bi izenpetu dituzte goian adierazitako lekuan eta bertan esandako egun horretan.

Y, en prueba de conformidad, se formaliza y firma el presente convenio en duplicado ejemplar, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento

**EIBARKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE EIBAR**

**EIBAR SAHARA ELKARTEA**